

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Artearen Oinarriak II

USE 2019

www.ehu.es





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2019ko UZTAILA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2019

FUNDAMENTOS DEL ARTE

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Proba idatzi honek 3 galdera ditu, eta gehienez 90 minutuan egin behar da.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

Esta prueba escrita se compone de 3 preguntas y debe ser realizada en 90 minutos, como máximo.



A AUKERA

1. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Egin iruzkin bat jarraian agertzen den irudiari buruz. Analisirako proposatzen den gidoia eredu bezala erabili behar da.

Gidoia:

1. Forma-analisia: azter ezazu lanak erabiltzen duen hizkuntza plastikoa (bolumena, azalera, konposizioa, mugimendua, etab.).
2. Interpreta ezazu nola erabili dituen egileak plastiko horiek lanaren sorkuntza globalean.
3. Saia zaitetz artelanaren gaia identifikatzen eta haren esanahian sakontzen.
4. Erlaziona ezazu irudia dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin, argudiatu mugimendu horretako zer ezaugarri ikusten dituzun bertan ordezkatuak eta saia zaitetz zehazten noiz egin zen.





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2019ko UZTAILA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2019

FUNDAMENTOS DEL ARTE

2. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Egin garapen teoriko bat jarraian proposatzen den gaiari buruz. Zenbait artelan aurkezten dira garapen teoriko horren oinarri gisa erabil daitezkeenak. Diskurtsoan artelan horiei erreferentzia egitea baloratuko da.

Gai-proposamena: azaldu ezazu neoklasizismoaren garapena.



VILLANUEVA: *Madrilgo Astronomia-behatokia* (1785)



CANOVA: *Hiru Graziak* (1816)



DAVID: *Sabinen bahiketa* (1799)



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2019ko UZTAILA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2019

FUNDAMENTOS DEL ARTE

3. GALDERA (Proba idatziaren % 20 balio du): Jarraian, testu zati bat proposatzen da. Irakur ezazu, laburbildu haren ideia nagusiak, eta erlazioa ezazu arte-estilo edo arte-mugimenduren batekin. Eman ezazu erlazio horren zergatia.

Louvre irakurtzen ikasteko dugun liburua da. Hala ere, ez dugu gogoia ase behar gure arbaso ospetsuen formula politak atxikitzearekin. Ekin diezaiozun natura ederra aztertzeari, saia gaitzen gure gogoia maisuengandik askatzen, ahalegindu gaitzen geure izaeraren arabera adierazten geure burua. Gainera, denborak eta gogoetak aldatu egiten dute pixkanaka gure ikuspegia, eta, azkenik, ulermena agertzen zaigu.

Paul Cézanne-ren eskutiz bat Émile Bernard pintoreari zuzendua, 1905ean Aix-en idatzia.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2019ko UZTAILA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2019

FUNDAMENTOS DEL ARTE

B AUKERA

1. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Egin iruzkin bat jarraian agertzen den irudiari buruz. Analisisirako proposatzen den gidoia eredu bezala erabili behar da.

Gidoia:

1. Forma-analisia: azter ezazu lanak erabiltzen duen hizkuntza plastikoa (bolumena, azalera, konposizioa, mugimendua, etab.).
2. Interpreta ezazu nola erabili dituen egileak plastiko horiek lanaren sorkuntza globalean.
3. Saia zaitetz artelanaren gaia identifikatzen eta haren esanahian sakontzen.
4. Erlaziona ezazu irudia dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin, argudiatu mugimendu horretako zer ezaugarri ikusten dituzun bertan ordezkatuak eta saia zaitetz zehazten noiz egin zen.





2. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Egin garapen teoriko bat jarraian proposatzen den gaiari buruz. Zenbait artelan aurkezten dira garapen teoriko horren oinarri gisa erabil daitezkeenak. Diskurtsoan artelan horiei erreferentzia egitea baloratuko da.

Gai-proposamena: azaldu *pop* artearen garapena.



ROSENQUIST: *Presidente hautatua* (1960-1961)



LICHTENSTEIN: *Autoan* (1963)



WARHOL: *Campbell zopak 200 lata* (1962)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2019ko UZTAILA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2019

FUNDAMENTOS DEL ARTE

3. GALDERA (Proba idatziaren % 20 balio du): Jarraian, testu zati bat proposatzen da. Irakur ezazu, laburbildu haren ideia nagusiak, eta erlazioa ezazu arte-estilo edo arte-mugimenduren batekin. Eman ezazu erlazio horren zergatia.

SURREALISMOA: izena. Automatismo psikiko purua, zeinaren bidez adierazi nahi baita, ahoz, idatziz edo beste edonola, pentsamenduaren funtzionamendu erreala. Pentsamenduaren agindu bat da, arrazoimenaren esku-hartze arautzailerik gabea, eta kezka estetiko edo moral orotatik kanpo dago.

André Breton, *Surrealismoaren lehenengo manifestua*, 1924.

2019



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

ARTEAREN OINARRIAK II

Zenbait gogoeta

- *Artearen Oinarriak* Artearen Teoria eta Historiako irakasgai bat da, baina sortzaileei zuzendua. Nahiz eta Giza eta Gizarte Zientzietako Batxilergoko *Artearen Historia* irakasgaiarekin zenbait eduki partekatu, *Artearen Oinarriak* ikasten duten ikasleen profila ezberdina da eta baita ere irakasleek eta ikasleek berek irakasgaiari ematen dioten ikuspegia.
- Aurretik aipatutako arrazoiarengatik, adibidez, artelanaren iruzkinean ez da eskatzen irudia edo bere autorea identifikatzea (egiten bada, positiboki baloratuko da noski, baina ez da ezinbestekoa), baizik eta irudiaren forma aztertzea, gaiaren inguruko gogoeta bat egitea eta mugimendu edo arte-estilo bati esleitzea argudiatuz zergatia.
- Era berean, gai-teorikoaren garapenean, irudiak pista bezala jartzen dira. Positiboki baloratuko da hauek garapenean integratzea, baina ez da ezinbestekoa haiei erreferentzia egitea.
- Testuaren ariketak duen helburua da ikasleek sortzaile baten idazki bat ulertu eta bere testuinguruan kokatzeko gai izatea.

Ebaluazio-irizpide orokorrak

1. Eskatzen zaionari egokitu egiten da eta gaien zentratzen da.
2. Zuzentasunez eta argitasunez espresatzen da, eta testu koherente eta egituratu bat egiteko gai da.
3. Bere baieztapenak argudiatu egiten ditu.
4. Gaiaren hiztegi espezifikoa erabiltzen du.

Ebaluazio-irizpide espezifikoak

Artelan baten iruzkina: 4 puntu

- Komentatu beharreko artelanean erabiltzen diren errekurso plastikoak identifikatu, aztertu eta koherenteki justifikatzen ditu eta artistak nola erabiltzen dituen azaltzen du.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

- Artelanaren errekurtsu plastikoak eta bere esanahiaren arteko erlazioak agerian jartzen ditu.
- Aztertu beharreko artelana sailkatu daitekeen mugimendu edo garaiarekin identifikatu egiten du eta beraren estilo-ezaugarri bereizgarriak ezagutzen ditu.
- Artelana eta historiografikoki sailkatzen den mugimendu edo estiloaren arteko loturak azaltzen ditu: obran ikusgai dauden mugimenduaren ezaugarriak aipatzen ditu, obra bere sorkuntza garai eta espazioan kokatzen du...

Gai-proposamen baten garapena: 4 puntu

- Proposatzen zaion gaia edo arte-mugimenduaren ezaugarri garrantzitsuenak identifikatzen ditu.
- Gaiaren inguruko beste aspektu esanguratsu edo nabarmenak ezagutzen ditu: kronologia, garatu zen lekua, artista bereizgarrienak....
- Azaltzen duen mugimendua, garai edo artistak eta beste estilo, garai edo artisten arteko erlazioak bilatzen ditu.
- Bere diskurtsoan koherenteki aipatzen ditu erreferentziatzat eman zaizkion irudiak.

Testu-iruzkina: 2 puntu

- Testuaren gaia eta idea nagusiak identifikatzen ditu.
- Testuko informazio garrantzitsuena laburbiltzeko gai da.
- Testuaren ideiak berarekin erlazioa daukan estilo edo mugimenduarekin harremanetan jartzen ditu.
- Bere ezagutzetan oinarritutako irizpide koherenteak erabiltzen ditu testuaren edukiak eta berarekin erlazioa daukan estilo edo mugimenduaren arteko loturak argudiatzeko.